

6. IKASGAIA. BALTZUEN ZUZENBIDEA

KAPITALEZKO BALTZUEN ESTATUTUEN ALDAKETAK

I. SARRERA

II. KAPITALAREN GEHIKUNTZA

- 1. Kontzeptua eta esanahi ekonomikoa**
- 2. Gehikuntza motak**
- 3. Gehikuntzaren kontrabalioa**
- 4. Harpidetzarako lehentasun eskubidea**
- 5. Osatugabeko harpidetza**

III. KAPITALAREN MURRIZTAPENA

- 1. Kontzeptua eta funtzio ekonomikoa**
- 2. Murriztapen efektiboa eta murriztapen izenduna (nominala)**
- 3. Murriztapen motak**
- 4. Hartzekodunen aurkajartzeko eskubidea**

IV. BAZKIDEEN BANANTZEA ETA KANPORATZEA

I. SARRERA

Kontuan izanik kapitalezko baltzuen estatutuek antolaketa zein funtzionamendu sozialaren inguruko aspektu asko arautzen dituztela, edozein unetan aldatu daitezke estatutuak baltzuaren inguruabar berrietara edota jarduera ekonomikoaren eskakizunetara egokitzeko. Modu honetan, estatutuen aldaketak bertan eman daitekeen edozein aldaketa barneratzen du, berdin duelarik bere edukia edota formari eragiten dion.

Hala ere, kontuan izan behar da estatutuko klausula oro aldatzeko *Legeak ezartzen duen prozedura errespetatu beharko* dela. Hortaz, ezinezkoa izango da estatutuen “izatezko” aldaketak ematea, hots, organo sozialen jarrera inplizituen edota bazkide guztien onarpen tazitoen bitartez. Ondorioz, estatutua ez bada legeak ezarritako moduan aldatzen, baltzuak estatutuetan ezarritakoari jarraitu beharko dio.

Estatutuak aldatzeko *eskumenari* dagokionez, Legeak Batzar Orokorraren esku uzten du bera delako organo subiranoa non borondate soziala eratu eta adierazten den (285. art.). Bazkideek baltzua eratzean egin duten kontratua aldatzeko ez da beharrezkoa, baina, bazkide guzti horien adostasuna, baltzu pertsonalistetan gertatzen den bezala. Legeak gehiengoa eskatzen du, gehiengo indartu bat bada ere (199. art., 201.2 art.). Hori bai, gehiengo horrek baditu bere mugak bazkide guztien interesean. Honela bazkideen informazio eskubidea indartzen da txosten berezien aurkezpena galdatuz (286. art.), esan bezala quorum eta gehingoak indartzen dira, eta zenbait kasuetan ados ez dauden bazkideek banantze eskubidea izango dute – 346. art.- edo akordioaren baliozkotasuna beraien adostasunera baldintzatuta geratuko da (adibidez obligazio berriak ezartzen direnean -291. art, 296.2 art-, edo akzio/partzipazio mota baten eskubideak aldatu nahi direnean -103 art., 293 art.-).

Kontuan izanik baltzu bateko antolakuntza arauak aldatzeak duen garrantzia, estatutuen aldaketak, esan bezala, *prozedura berezi batenpean* geratzen

dira. Prozedura arau hauek izaera inperatiboa dute eta, beraz, errespetatzen ez badira Batzarraren hartutako erabakiak deusezak izango dira.

Hurrengo orrialdeetan estatutu aldaketa garrantzitsuenak aztertuko ditugu. Alde batetik kapitala kopurua aldatzen dutenak, bai kopuru hau gehitzeko, bai murrizteko. Eta, bestetik, akzio edo partizipazioak transmititu gabe suertatzen diren bazkide aldaketak: banantzea eta kanporatzea.

II. KAPITALAREN GEHIKUNTZA

1. Kontzeptua eta esanahi ekonomikoa

Kapital gehikuntza *eragiketa juridiko* bat bezala ulertu behar da zeinaren bidez estatutuak aldatzen diren estatutu horietan jasotzen den kapital kopurua igotzeko. Esanahi honen bitartez adierazi nahi da kapitalaren gehikuntza orok estatutuaren aldaketa dakarrela. Kapitalaren kontzeptua azaltzerakoan ikusi da kapital kopurua finko mantentzen dela ondarea egunez egun aldatzen den heinean. Baltzuen egitura finantzieroaren funtsezko elementu bat da, bai baltzuen interesean, bai hirugarrenen interesean. Baina interes hauek kontuan izanik, zenbait kasutan komenigarria da elementu hori aldatea.

Legeak baldintza ugari ezartzen ditu azken batean kapitalaren gehikuntzaren bitartez baltzuen egitura ekonomikoan aldaketa garrantzitsu bat ematen delako, eragina duena baita bazkideengan eta hartzekodunengan (kapitalaren funtzioak kontuan izanik).

Orohar kapital gehikuntza ematen denean baltzuek euren ondarea handitu nahi izaten dute diruzko edota bestelako ondasunak erakarriz. Hala ere, hiru dira kapitalaren gehikuntza adosteko arrazoiak:

- 1) Finantziazioa: baltzuen objektua egikaritzeko baliabide berriak behar direnean ematen da. Honi **gehikuntza efektiboa** deitzen zaio, izan ere, ondarea aberastuko delako diruzko edo ez diruzko ekarkin berriekin.

Helburu hori bideratzeko beste aukera bat izan daiteke kanpotiko finantziazioa jasotzea besteren fondoan bidez (maileguen bidez, obligazioak jaulkituaz...), azken kasu honetan kapitala ez da aldatzen. Behar diren fondo berri horiek gehikuntzaren bitartez lortzeak finantziazio merkea eta egonkorra lortzea suposatzen du baltzuarentzako.

2) Fondo propioen berregiturapena (autofinantziazioa): baltzuaren egitura fiantzieroa indartu nahi denean ematen da hau, baina fondo berriak eskatu gabe. Baltzuak izandako irabaziekin bere ondarea aberastu du aurreko ekitaldi ekonomikoetan eta erreserba moduan zituen baliabideak kapitalaren postura eramatera erabakitzen da. Modu honetan, xedagarriak diren baliabideak xedaezinak egiten dira. Hau **gehikuntza nominala** bezala ezagutzen da, zeren, izatez ez dago aldaketarik ondarean. Kontua da aurrerantzean handiagoa izango dela atxekita (erretenitua) geratzen den ondarea.

3) Saneamendua: krisi egoera bati aurre egiteko neurri bat dela esan daiteke honen bitartez pasiboa murrizten baita. Kapitalaren gehikuntzak dakarren akzio/partizipazio kopuru berria hartzekodun bati (edo gehiagori) eskeintzen zaizkio azken honek duen kreditua asetzeko. Honela baltzuaren zorrak akzio/partizipazio berriekin konpentsatzen dira, hartzekoduna bazkide bihurtuz.

2. Gehikuntza motak

Legeak (295.1. art.) adierazten du kapital gehikuntza *bi modutan eman* daitekeela: (1) *akzio/partizipazio berriak jaulkiz edo* (2) *idadanik existitzen diren akzio/partizipazioen balio izendatua gehituz*.

Printzipioz, baltzua librea da aipatutako modu horietako bat edo bestea hautatzeko. Baina, modu bakoitzak bere berezitasunak ditu:

- akzio/partizipazio berriak jaulkitzen direnean, *harpidetzarako lehentasun eskubidea* izango dute bazkide “zaharrek” (304. art.)

- jadanik existitzen diren akzio/partizipazioen balio izendatua gehitzen bada beharrezkoa izango da *bazkide guztien adostasuna*, ez bada gehikuntza nominala, hau da, ekarpen berriak eskatzen badira (296.2. art.).

3. Gehikuntzaren kontrabalioa

“Kontrabalio” hitzarekin ekarkinaren izaera aipatu nahi da, hau da baltzuak jasotzen duena akzio/partizipazio berriak emateagatik edo daudenen balioa igotzeagatik. Legeak (295.2 art.) dioenez, kapitalaren gehikuntza edozein modutan egiten dela ere honako kontrabalioen bitartez egin daiteke: *diruzko edo ez diruzko ekarkinen bitartez, kredituen konpentsazio bidez eta azken balantzean onartutako erreserba eta mozkinen eraldaketarekin*.

1) Diruzko ekarkinak:

Suposturik ohikoena da eta errekurtsio propioak behar dituzten baltzuak egiten dute. Aukera hau Legearen 299. artikulua aurreikusten du.

Aipatutako artikulua esanetan baltzu anonimoetan kapitalaren gehikuntza diruzko ekarpen berriak eskatuz egin nahi bada, beharrezkoa da dauden akzioen balioa ordainduta egotea (erantzukizun mugatuko baltzua ez dago desbolsaketa pendienterik), salbuespen batekin: ordaintzeke dagoen kopuruak kapital sozialaren %3a gainditzen ez badu.

2) Ez diruzko ekarkinak:

Kapitalaren gehikuntzarako kontrabalioa ez diruzko ekarkinak direnean, beharrezkoa izango da batzarrerako deialdia egiten den une berean bazkideei eskuragarri jartzea administratzaileen txostena bertan honako informazioa jasoko delarik: proiektatuko diren aportazioen inguruko informazioa, euren balorazioa, burutuko dituzten pertsonak, kopurua eta euren (akzio/partizipazio) balore nominala, kapitalaren gehikuntzaren zenbatekoa eta ekarpena ziurtatzeko hartuko diren bermeak ondasunen izaera kontuan izanik (300. art.).

3) Kredituen konpentsazioa:

Zorraren kapitalizazioa bezela ezagutzen da. Honen bitartez hartzekodun sozialak bazkide bihurtu daitezzen lortzen da, beti ere, prest badaude euren kreditua baltzuen akzio/partizikazio kopuru baten truke ordezkatzeko. Modu honetan, hartzekodunak, bazkide berria izango denak, ez du beste ekarpenik egin behar. Legeak konpentsazioari buruz hitz egiten du, baina ordainketan emate bat da gertatzen dena (*dación en pago*).

Horrelako eragiketa bat burutzeko baldintza batzuk ezartzen dira legean. Alde batetik kredituari buruzko eskakizunak: erantzukizun mugatuko baltzuen kasuan kredituak guztiz likidoak eta exigigarriak izan behar dira eta baltzu anonimoaren kasuan konpentsatuko diren kredituen %25 izan behar du likidoa eta exigigarria, eta gainerako kredituen muga-eguna ez da izan behar bost urtetik gorakoa (301.art.).

Beste alde batetik, gainontzeko bazkideen interesean, batzarrerako deialdia egiten denean, administratzaileek bazkideen esku txosten bat utzi behar dute non kredituen izaera eta ezaugarriak, titulodunak, jasotzen dituzten akzio/partizipazio kopurua eta kapitalaren gehikuntzaren balio jasoko diren (301.2 art.).

Baltzu anonimoan gainera, bazkideen esku utzi behar da kontu ikuskariak egindako ziurtagiri bat, non egiaztatzen den administratzaileek kredituei buruz emandako informazioa zehatza dela

* *Obligazioen bihurketa*: kredituen konpentsazioaren modalitate sinple bat da, beraz, berari dagokion araudi bera aplikatzen dela dio legeak, 302.art.

4) Erreserba edo mozkinen eraldaketa:

Kasu honetan, aurreko besteetan ez bezala, baltzuan ez da ondasun berririk sartzen eta ez da ere bere egoera patrimoniala aldatzen. Gertatzen den bakarra baltzuen fondo propioen berregituraketa bat da. Aldaketa kontable huts bat egiten da balantzaren pasiboan, baliabide batzuk irabazi edo erreserba postutik kapitaleko postura eramanaz.

Esan bezala, eraldaketa honek ez du eraginik baltzuaren ondarean baina ondorio juridiko garrantzitsuak ditu. Izan ere, erreserbak kapital bihurtzen diren unetik xedaezinak bihurtuko dira, hots, lehen bazkideen artean banatu zitekeen ondarea orain baltzuan geratu behar da.

Legeak 303. artikuluan finkatzen du zeintzuk diran eragiketa honetarako erabili daitezken erreserbak. Erantzukizun mugatuko baltzuetan erreserba xedagarrietaz gain, partizipazioak beragainhartzeko primekin osatutako erreserba eta legezko erreserba guztia erabiltzeko aukera ematen da. Baltzu anonimoan aldiz, xedagarriak, jaulkipen-primak eta legezko erreserba gehitutako kapitalaren %10etik gorako zatian.

4. Harpidetzarako lehentasun eskubidea

Hapidetzarako lehentasun eskubidea *bazkideek duten funtsezko eskubide* bat da (93.b.-art.) eta honen *helburua* bazkideak baltzuan duen partaidetzari eustea da, hots, berak duen eskubide ekonomiko eta politikoetan duen portzentaia mantentzea. Helburu hau lortzeko, bazkideak, jadanik dituen kapitalaren portzentaiaren arabera harpidetu ahal izango ditu berriak akzio edo partizipazio. Kontuan hartzekoa da harpidetzeko lehentasuna bazkideen eskubide bat den ehienan, hauek, eskubide hori *eskualdatzeko aukera* ere badutela (306.art.) nahiz eta bere mugak izan.

Hapidetzarako lehentasun eskubidea bazkideek duten funtsezko eskubide bat dela esan badugu ere, aipatzekoa da Legeak (308.1.art.) *eskubide hori guztiz edo partzialki ezabatzeko aukera* aurreikusten duela. Hau da, Batzar Orokorrak baltzuaren interesa kontuan izanik (*baltzuaren interesak hala galdatzen badu*) erabaki dezake kapitalaren gehikuntza egitean hapidetzarako lehentasun eskubidea partzialki edo guztiz kentzea. Supostu deberdinetan eman daiteke behar hau: gehikuntza kredituak konpentsatzeko egiten denean, finantziatzaile bati sarrera eman nahi zaiolako, ez-diruzko ekarpen interesgarriak egin ditzazketen hirugarrenei eskaintzeko, langileei akzio/partizipazioak eskaintzeko asmorik balego, e.a.

Aipatutako egoerataz gain, Legeak (304.2.art.) argi uzten du *ez dela hapidetzarako lehentasuneko eskubiderik emango bi kasutan*: 1)

xurgapenezko fusio kasuetan eta, 2) gehikuntza obligazioak akzio bihurtuz egin bada.

5. Osatugabeko harpidetza

Bestalde, gerta daiteke akzio/partizipazioak harpidetu gabe geratzea horienganako interesik ez dagoelako. Kasu honetan, Legeak bi eraentza desberdin aurreikusten ditu kapitalezko bi baltzuentzat:

- Erantzukizun mugatuko baltzuak (310. art.): gehitutako kapitala ez denean oso-osorik ordaintzen horretarako ezarri den epean (305.art.), gehikuntza egingo da ordaindutako zenbatekoaren arabera, salbu eta erabakian adierazten denean gehikuntzak ez duela ondoriorik izango, ordainketa oso-osorik egiten ez bada. Modu honetan, kapital gehikuntza efekturik gabe uzten bada administrazio organoak ordainketa egiteko epea amaitu eta hurrengo hilabeteko epean egindako aportazioak itzuliko ditu.
- Baltzu anonimoa (311.art.): gehitutako kapitala ez denean oso-osorik harpidetzen horretarako ezarri den epean, gehikuntza egingo da harpidetutako zenbatekoaren arabera, baldin eta jaulkipenaren baldintzek aukera hori jaso badute esan-bidez.

Kapital gehikuntza efekturik gabe uzten bada administrazio organoak Merkataritzako Erregistroko Boletin Ofizialean argitaratuko du eta harpidetzaren epea amaitu eta hurrengo hilabetean ordaindutakoa itzuliko zaie harpidedunei.

III. KAPITALAREN MURRIZTAPENA

1. Kontzeptua eta funtzio ekonomikoa

Kapitalaren murrizpena, logikoki, kapital gehikuntzaren alderantzizko eragiketa bezala aurkezten da. Hau da, estatutuetan jasotzen den zifra gutxitzeko egiten den eragiketa juridikoa da. Legearen eraentza eragiketa honek *hartzekodunekiko sortzen dituen efektuengatik* hauek babesteko pentsatua dago.

Erabakia Batzar Orokorraren esku geratzen da, estatutuen aldaketa suposatzen duen einean, batzarraren akordioak eduki hau izan behar duelarik legearen esanetan: murriztapenaren zenbatekoa, murriztapearen helburua, baltzuak erabiliko duen prozedura, burutzeko epea eta dagokion kasuan bazkideei itzuliko zaien zenbatekoa (318. art.). Merkataritzako Erregistroko Boletin Ofizialean argitaratu beharko da eta baltzu anonimoen kasuan web gunean edo bestela sozietatearen egoitza kokatzen den probintzian zabalkunde handia duen egunkari batean (319.art.).

Kapital murriztapena batez ere *bi kasutan ematen* da:

1) Bazkideek baltzuaren objektua egikari ahal izateko behar baino kapital handiago bat ekarri badute. Izan ere, honek eragin zuzena du bazkideek jaso ditzaketen dibidendoen gain, banaketa posibilitateak gutxitzen dituelako. Hala ere, aipatzekoa da kasu hau ez dela praktikan asko ematen. Murriztapen honi murriztapen efektiboa deritzogu ekarpenak itzuliaz egiten delako, beraz eragina duelako baltzuaren ondarean, hau ere murriztuz kapitalarekin batera.

2) Galerak direla eta, baltzuaren ondarea modu nabarmenean murriztua geratzen bada. Kasu honetan, kapitala murriztuaz lortu nahi dena da hirugarrenen interesak babestea hauek ez dezaten baltzuaren irudi faltsu bat izan. Praktikan, gehienetan ematen den kasua izan ohi da hau. Hala ere kasu hau krisi egoeretan ematen denez normalean, trafikioan murriztapena ez da begi onekin ikusten den aldaketa bat. Murriztapen honi nominala deritzogu ez duelako berak ondarearengaineko eraginik. Baltzuak ondarea galdu du jadanik eta kapitalaren murriztapenak egiten duen bakarra da kapital kopurua errealitate berrira egokitu.

2. Murriztapen efektiboa eta murriztapen izenduna (nominala)

Aztertu bezala bi kasutan eman daiteke kapitalaren murriztapena eta antzeman daitekeen moduan; *murriztapen efektiboak* ekarkinen itzulketa suposatzen badu ere *murriztapen izendunean* ez da aldaketarik ematen ondarean.

- Murriztapen efektiboa borondatezkoa da eta bi modutan gauzatzen da: 1) diruzko edo ez diruzko ekarkinak itzuliz; 2) baltzu anonimoan ekarkinaren ordaindu gabeko zatia barkatuaz .

- Murriztapen izenduna obligaziozkoa da baltzu anonimoetan neurri batetik aurrera, izan ere, Legeak dio galerek ondare netoa kapitalaren bi herenaren azpitik jarri badute eta ondare netoa berreskuratu gabe jarduera sozial bat eman bada *kapitalaren murriztapena derrigorrezkoa* izango dela (327.art.).

* Erreserbak eratu edo gehitzeko egiten den murriztapena berriz, aipatutako bi murriztapenen erdi bidean geratzen da eta borondatezko izaera dauka.

3. Murriztapen motak

Legeko 317. 2 artikulua dioenez, *kapitalaren murriztapena hiru modutan egin* daiteke: 1) akzio/partizipazioen balio nominala gutxituz; 2) akzio/partizipazioak amortizatuz; edo, 3) akzio/partizipazioak multzo batean bateratu eta multzo osoa akzio bakar batez ordezkatuaz.

4. Hartzekodunen aurka egite eskubidea.

Kapitalaren murriztapenak eragina izan dezake kapitalezko baltzuen hartzekodunen gain, beraiek duten berme bakarraren murriztapena dakarrelako. Hauek babesteko asmotan Legeak neurri desberdinak hartzen ditu kapitalezko bi baltzu nagusietarako.

- Baltzu anonimoa

Kapitalaren murriztapenak ekar dezakeen arriskuaren aurrean, Legeak (334.art.) hartzekodunaren alde kapitalaren murriztapen akordioa aurkatzeko eskubidea aurreikusten du. Baina, hartzekodunak eskubide hau izateko *bi ukanbehar* garrantzitsu bete behar ditu: 1) kapital murriztapen akordioari buruzko azken iragarpenaren aurretik sorturiko kredituen titulodun izatea; eta 2) kredituak behar bezala bermatuak ez izatea. Azken ukanbehar honekin lotuta, esan beharra dago *hartzekodunak bere kredituak behar bezala bermatuak ikusten baditu ez duela eskubide honetaz gozatzeko aukerarik* izango.

Aipatutakoaz gain, Legeak (335.art.) aurreikusten ditu zenbait kasu non *hartzekoduna eskubide honetatik at* geratzen den: a) murriztapen nominalaren kasuan -murriztapena jadanik egon diren galerei begira egiten delako, ez du baltzuak bere ondorioz ondarrerik galtzen-; b) murriztapenarekin legezko erreserba -kapitalaren %20- eratu edo gehitu nahi bada; eta, c) irabaziak edo borondatezko erreserbak erabiliaz egiten bada edota dohainik eskuratutako akzioak amortizatuz. Halakoetan, amortizatutako akzioen balio izendatu edota akzioen balio izendatuaren murriztapena zenbatekoa erreserba baterako erabili behar da (“kapitalezko erreserba”); erreserba hori xedatzeko, kapitala murrizteko betekizun berberak eskatzen direlarik.

- Erantzukizun mugatuko baltzua

Erantzukizun mugatuko baltzuei dagokionez, Legeak (331.art.) *bazkideen erantzukizuna* aurreikusten du. Hau da, bazkideei euren ekarpenak itzuli bazaizkie (guztiz edo zati batean) euren artean solidarioki eta baltzuarekin batera zor sozialengatik erantzungo dute, beti ere, zor sozial horiek murriztapenaren akordioa hirugarrenei aurkajargarria izan aurretik sortu badira.

Kontuan hartzekoa da bazkide bakoitzak izango duen erantzukizunaren muga izango dela jaso duen ekarpen sozialaren kantitatea, eta erantzukizun hori bost urteren buruan preskribituko dela behin murriztapena hirugarrenei aurkajartzeko aukera dagoenetik kontatzen hasita.

Baina arau honek ere badu bere salbuespena: ez da bazkideen erantzukizun solidariarik egongo murriztapena adosterakoan erreserba berezi bat eratzen bada murriztapen horren balioarekin eta irabaziak edo erreserba xedagarriak erabiliz (332. art.).

Dena den Legeak (334.art.) onartzen du erantzukizun mugatuko baltzuetan ere hartzekodunei murriztapen akordioak aurkatzeko eskubidea arrezagutzea, beti ere baltzuaren estatutuetan jaso ezkerro. Kasu hauetan murriztapen akordioa ez du eraginik izango ez badira hiru hilabete igarotzen hartzekodunei honen inguruan informatzen zaienetik. Informazio edo notifikazio hori pertsonalki egingo zaie, baina hori ezinezkoa bada

Merkataritzako Erregistroko Boletik Ofizialean eta baltzuko web gunean edo bestela sozietatearen egoitza kokatzen den probintzian zabalkunde handia duen egunkari batean argitaratu beharko litzateke.

IV. BAZKIDEEN BANANTZEA ETA KANPORATZEA

Bazkideen banatzea eta kanporatzearen instituzioak funtzio garrantzitsu bat dutela esan daiteke: baltzuko *gehiengoaren eta gutxiengoaren artean dauden gatazkak konpontzea*. Gatazka esanguratsua eta egonkorra bada baltzuaren funtzionamendua oztopatu dezake eta kasu horietan bazkide baten edo batzuren irteerak bi alderdien interesak ase ditzazke. Joaten den bazkidearekiko harremana amaiera ematen zaio baina baltzuak jarraitu dezake geratzen direnekin. Joate hori bazkideak bilatu dezake edo gehiengo inposatu. Honela, *banantzeak* bazkideari bitarteko bat eskeintzen dio gehiengoarekin duen harremanetik bereizteko horretarako arrazoiak egonik, beti ere bere inbertsioa errekueratuz. Bestalde eta paraleloki, *kanporatzeak* aukera ematen du gehiengoak bazkide batekin edo gutxiengoa diren bazkide batzuekin duen harramanetik bereizteko, izan ere, gutxiengo horien jarrerak ez baitie helburu komuna lortzen uzten.

1. Banantzea

Behin banatzea zer den azaldu dugularik, orain, banantzea emateko kausak ikusiko ditugu. Hauek bi taldetan sailkatu daitezke:

1.1 Legezko banantze kausak

Legearen (346.1.art.) esanetan estatutuak aldatzen direnean akordioaren alde bozkatu ez duten bazkideek, boturik gabeko bazkideak barne, *eskubidea daukate kapitalezko baltzutik banantzeko honako akordio hauek hartu badira*: a) objektuaren aldatze nabarmena; b) baltzuaren luzatzea; c) baltzuaren berpiztea Bestalde eta paraleloki, *kanporatzeak*; eta, d) eranskinezko prestazioen sortze, aldaketa edo iraungipena.

Esandakoaz gain, *erantzukizun mugatuko baltzuetako bazkideak* aukera izango dute baltzutik banantzeko partizipazio sozialen eskualdaketaren eraentza aldatzeko akordioaren alde bozkatu ez badute (346.2art.).

Bestalde *baltzuaren eraldaketan eta baltzuaren egoitza atzerrira eramaten denean* bazkideek banantzeko eskubide dute apirilak 3ko 3/2009ko Legeak ezartzen duenaren arabera.

1.2 Estatutuetan jasotako kausak

Legeak (347.art.) aukera ematen du estatutuetan beste banantze kausa batzuk jasotzeko. Halakoetan estatutuek zehaztuko dituzte arrazoia badela egiaztatzeko modua, banantze eskubidea egikaritzeko forma eta epea. Estatutuetan halako banantze kausak barneratzeko edota arrazoi horiek aldatu zein ezabatzeko, nahitaezkoa da bazkide guztien adostasuna.

2. Kanporatzea

Kanporatzea emateko kausak ere legean jasotzen dira estatutoen bitartez hedatu daitezkelarik. Baian legezko kasuak *soilik erantzukizun mugatuko baltzuentzat pentsatuak daude*. Baltzu anonimoaren eraentzan ez dira tradizionalki jaso baltzu hauetarako bazkidearen ekarpena izan delako bazkideen obligazio nagusi bakarra, beste guztiak bigarren maila batean geratuz. Bestalde kapitalaren egonkortasunaren printzipioak kanporatzeak dakarren kapitalaren murriztapenaren kontra jokatu du. Legeak kasu bat aurrikusten du non bazkidea kanporatua izan daiteken baltzu anonimoan: bere ekarpena ez osatzearena (84.2 II art.).

2.1 Legezko kanporatze kausak erantzukizun mugatuko baltzuan

Erantzukizun mugatuko baltzuetan kanporatu daiteke bazkide bat: a) eranskinezko prestazioak ez egiteagatik; b) bazkide administratzaileak lehiaketarako debekua ez errespetatzeagatik edo, c) bazkide administratzailea epai irmoaren bidez kondenatua izateagatik sozietateari kalte-galeren ordaina ematera, baldin eta kalte-galera horiek sortu badira legearen edo estatutuen aurkako egintzen ondorioz edo behar beteko arretaz ez jarduteagatik (350.art.).

2.2 Estatutuetan jasotako kausak

Erantzukizun mugatuko baltzuetan, bazkide guztien oniritziarekin, kanporatzeko kausak ezarri daitezke edo lehendik daudenak ezabatu edota aldatu. (351.art.)

3. Arau komunak

Bazkideak baltzua uzten duenean, banantze eskubidea egikaritu duelako edo kanporatua izan delako, baltzuan duen ondare zatia berarekin eramateko eskubidea du. Baltzua eratzekoan egin zuen inbertsioa errekueratu dezake eta noski jarduera ekonomikoari esker lortu eta baltzuan utzi denaren zati bat ere. Horretarako legeak zenbait arau jasotzen ditu:

* *Balorazioa*: bazkidearen eta baltzuaren artean adostasunik ez badago partizipazio/akzio sozialen balorearen inguruan edota norik baloratu behar duen eta zein prozedura jarraitu behar denaren inguruan, orduan, erregistratzaileak izendatutako kontu ikuskari batek (baltzuren kontuak ikuskatu ez dituen batek) baloratuko ditu (353.art.).

* *Ordainketa*: aipatutako balorazioa egin osteko bi hilabeteren barruan, bazkideek sozietatearen egoitzan eskuratu dezakete akzio/partizipazioen balioa, sozietateak eskuratu dituenen prezio gisa edo amortizatu direnen itzulketa moduan (356.art.).

* *Bazkideen erantzukizuna*: erantzukizun mugatuko baltzuetan partizipazioen balorea jaso duten bazkideek erantzukizun solidariopean egongo dira zor sozialekiko, kapitalaren murriztapena ekarpenen bueltatzearen bitartez ematen den kasuan bezala (357.art.).